

LANDARAK

Bizidun guztien antzera, landarak be jaio, arnasea artu eta bota, eta ugaritu egiten dira. Kizkin edo zelulak daukez.

Baiña landarak ez dira tokiz aldatzen, lurretik artzen dabe euren janariaren zati bat.

Landareak bakarrik atera leike, berarentzat, gizonentzat eta bizidun guztientzat bear-bearrezkoa dan janaria. Orretarako da orriak dauken gai orlegia, klorofila deritxona.

Landarak ez gaitue bear bizi izateko, baiña gu ezin geintekiz bizi landarak bagerik.

Landarak egunez arnasea artzen dabenean oksijenoa botaten dabe guk arnasea artu dagigun, baiña gabaz ez dabe oksijenoa botaten, karbonoa baiño, orregaitik gabaz ez da euki bear landararik gela itxian, kalte egiten dabe-ta.

Landarak eldu arte, gizelan baten lurretik 471.000 litro ur artzen dauz. Eta 1.200.000 litro ur botaten dauz urtean lurrin lez.

Lurretik artzen dau bear dauan janariaren millatik bat eta beste gauza asko aixetik, girotik eta eguneko argitik...

Sustraiak dira landarearen zati bat. Oneik landarea janaritu eta zutunik dauke. Gari-landara batek, elduta dagoanean, 67.000 sustraitxu daukaz eta indar aundia dauka

lurra zulatzeko. Estaterako torreko ertz baten jaio dan zugatzak torrea botateko besteko indarra dauka azten doanean. Eta atxak be apurtu egiten dauz sustraiak. Baiña ugarriak eta ikusgarriak dira lur-gaiñeko enborrak. Landara batzuk, esaterako patateak, lurpean dauka enborra eta an emoten dau frutua. Ez da sustraia, enborra baiño patatea emoten dauana, lurpean egon arren.

Zelan jakin geinke zugatz batek zenbat urte daukazan?

Enborra ebagi eta ikusi zenbat ereztun daukazan. Ainbeste dira zugatz aren urteak. Baiña zugatza bota barik be jakiten da zenbat urte dauzan. Ba dago "Colorado"n zugatz bat 1.344 urtekoa dana.

Aztertu daiguzan orriak.

Antxiñako Greziá'n, etorkizunaren barria emoteko aztiak orrietan idazten ebezan euren erantzunak. Arabiarrek Koran'en zatiak orrietan idazten dabez.

Antxiñako Grezia ta Erromatarrek gizonen garaipenak agertzeko, orio-ondoaren eta ereñotzaren orriak artzen ebezan koroia egiteko. Ortik etorria da Batxiller edo bacca-laureus izena, ereñotzagaz

egindako koroia ezartzen eutselako.

Baiña orriak ori baiño geiago diñoskue: Orrien azpian arnasea obeto artzen dogu, orretan lorak baiño obeak doguz. Zergaitik? Orriak, bedarrenak naiz zugatzek, argibilla dagozelako eta argiagaz gutzat oksijenoa sortzen dabe, guk arnasea artzeko eta orretarako da euren klorofila-lana.

Arrigarriak dira basa-mortuko bide-ertzetan dagozan landara batzuk. Euren barruan ura gordeten dabe eta egunero amar litro ur emon leikez astebete baiño geiagoan. "Bidaztien zugatza" dero-txoe olakoari Madagaskar'en. Baiña kontuz urgeldiaren ondoan dagoanean, orduan ura ez da edatekoa.

Orriak itxura askotakoak izan daitekez: bakarrik, alkartuak, arantzadunak, elipse-antzekoak, aizto-antzekoak, luzeak, biotz-antzekoak... guztiak politak... eta guztiok jaten doguz orriak gordiñik naiz egosita.

**MARGO EDERDUN
ENTZIKLOPEDIA'tik
OLAZAR'tar Martin'ek
moldatua**

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!